

begira



43. zk.
2018ko uztaila



ULMA
a better place

Pertsonak biltzen ditugu bere
ahalmenak erabiliz lider
batean lan egiten zuten.

kin

ukera

nahi dut

ULMA a better place



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <
ULMA Constructionek PEFC ziurtagiria
lortu du Espainian, **ingurumenarekin**
duen konpromisoa aitortzeko



ALBISTEAK >
ETA GAURKOTASUNA
Ate irekien eguna
ULMA Packagingen



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <
ULMA – ICQO hitzarmena **RETINAL**
proiektua garatzeko



> **ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK**
Mikel Diez. Mendigoizale petoa



> **AURREZ AURRE**
Ainhoa Fernandez. ULMA Packagingeko
Pertsonen Kudeaketako zuzendaria

2018ko uztaila

04 **albisteak eta gaurkotasuna**
ULMA Agricolak 5 Ha negutegi
baino gehiago instalatu ditu Asia
Erdialdean

ULMA polimero hormigoizko
fatxada aireztatuak Malagako
Green Ray eraikinean

Ese Erre, berezitasuna
markatzen duen esperientzia eta
profesionaltasuna

ULMA Handling Systemsek 230
milioi euro lortu ditu datozen bi
urteetarako eskaeretan

ULMA Piping berriro izan da Tube
Dusseldorf 2018 azokan

14 **ULMA Taldeko**
beste talentuak
Mikel Diez. Mendigoizale petoa

16 **aurrez aurre**
Ainhoa Fernandez. ULMA
Packagingeko Pertsonen
Kudeaketako zuzendaria

18 **erreportajea**
ULMA Taldeak bere Marka
Enplegatzailearen irudi berria
aurkeztu du bere Negozioak
bultzatzeko

20 **erreportajea**
ULMA Taldeak Euskara Kudeatzeko
politika orokorrak onartu ditu

24 **ULMA Fundazioa**

26 **agenda eta iradokizunak**



ARGITARATZAILEA:

Grupo ULMA S. Coop.
Garagaltza auzoa, 51
20560 OÑATI

Tel.: 943 25 03 00

ZUZENDARITZA:

Carlos Sarabia
csarabia@ulma.com

EDITORE/ERREDAKZIO KONTSEILUA:

Nora Altube, Joseba Alberdi,
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,
Irene Moreno, Edurne Unzueta,
Nerea Burgoa, Jesús Mari Eguiluz eta
Carlos Sarabia.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Igone Basterra
ibasterra@ulma.com

INPRIMATEGIA:

Gertu S. L.



Aldizkari hau paper
birziklatuan inprimatu da.
#keinujasangarria

ULMA ORGA JASOTZAILEAK

Ese Erre, berezitasuna markatzen duen esperientzia eta profesionaltasuna

ESE ERRE MANTENTZE LANETAKO ZERBITZUAK EGITEN DITUEN ENPRESA BAT DA, ETA PROFESIOALENTZAKO ORDEZKO PIEZAK BANATU ETA SALTZEN DITU

Ese Erre ULMA Servicios de Manutencione enpresa bat da, ordezko piezak banatzen eta saltzen dizkie profesionalari, eta sektorearen foro nagusietan egoten da beti. Horrenbestez, joan den maiatzean, ordezkaritza komertzial batek Espainiako Aireko Lan Plataformen Alokatzailen Elkartearen (Anapat) urteko konbentzioan parte hartu zuen, Sevillan, negozio unitateko zuzendari Eduardo Trojaola Ayastuy buru zela. Elkarteak hogeita laugarren batzarra egin zuen, eta plataformen alokairuaren sektoreko bazkide, fabrikatzailea eta gainerako hornitzaileak elkartu zituen, parte hartzaileen erantzun handiarekin.

Jardunaldian zehar, Ese Erreko taldeak bere aukera zabalean eskaintzen dituen produktuak ezagutarazi zituen, bereziki, plataforma jasotzaileen sektoreari lotutako produktuak, baita eskaintzen duen balio erantsia ere, bere ecommerce zerbitzu indartsuak ematen duen lehiakortasunari eta persona taldeen aholkularitza adituko zerbitzuari esker.



ULMA CONSTRUCTION

ULMA Constructionek PEFC egiaztagiria eskuratu du Espainian ingurumenarekin duen konpromisoaren aitortza gisa



PEFC egiaztagiria lortuta (Programme for the Endorsement of Forest Certification Schemes) ULMA Constructionek beste urrats bat gehiago eman du, **bere jardueraren garapena eta ongizate soziala harmonizatze duen konpromisoan, ingurumenarekin bateragarri izanda.**

Hala, ULMAk, programa horrekin bat eginda eta PEFC egiaztagiria lortuta, modu aktiboan laguntzen du munduko basoak era arduratsuan kudeatuko direla ziurtatzen, ahalegintxo bat eginda klima aldaketa ekiditeko eta landa populazio askoren oinarria bermatzeko funtsekoak diren **biodibertsitatea eta ekosistema ugari babesteko.** Zaintza Katearen egiaztapenaren barruan sartzen da basoko produktuak iturri iraunkorretarantz jotzeko trazabilitaterako eskakizunak betetzea. ULMAren egiaztapenaren irismena VM-20 egurrezko habeak, hiru geruzako taulak eta Birch taula fenolikoak Espainian saltzeko lanetarako aplikagarria izango da, haien fabrikaziorako baso egiaztatuetatik

datozen produktuak erabiliz.

ULMAren aukeraketa arduratsua **merkatu globaletan sartzeari ahalbidetzen du**, mundu mailako erakunde eta enpresek PEFC erabiltzen baitute basoen kudeaketa iraunkorren erreferentzia gisa. Zaintza Katearen PEFCren bitartez egiaztatzea da, hitz batean, **ULMAko kolektibo osoak hartutako konpromisoa eta egindako ahalegina aitortzea**, bere jardura modu iraunkorrean garatzeak ingurunean inpaktu txikia izaten laguntzeko eta, gainera, bere bezeroen eskaerei erantzuteko, gero eta kontzientziatuagoak baitaude PEFC Zaintza Katearen egiaztagiria duten produktuen erabilerarekin eta eraikuntza metodo iraunkorrak aplikatzearekin, hala nola, BREEAM metodoa (Building Research Establishment Environmental Assessment Methodology) edo LEED eraikitze modua (Leadership in Energy and Environmental Design), besteak beste.

ULMA TALDEA

ULMA Taldea WORKinn enplegu foroan

BALIO ERANTSI HANDIKO ENPLEGUA SORTZEKO KONPROMISOA DA ORAINDIK ERE ULMAREN NORTASUN BEREIZGARRI NAGUSIETAKO BAT

Maiatzaren 30 eta 31n WORKinn enplegu foroaren 2. edizioa egin zen Bilbao Exhibition Centren, Makina-erremintaren Espainiako Bienala (BIEMH) egin zen une eta leku berean, eta ULMA Taldea egon zen bertan.

Oraindik ere, pertsonetikiko eta ingurunearekiko konpromisoa indartzea da funtsean ULMAren helburua, ULMA moduko hain Talde dibertsifikatua eta zabalean lan egiteko interesa duten pertsonekin harremanak estutzen jarraitzeaz aparte. Horretarako, Taldeko negozio batzuetako ordezkariek negozioiek gehien eskatzen dituzten profilak azaldu zituzten, eta enplegu eskaintza batzuk aurkeztu.

Balio erantsi handiko enplegua sortzeko konpromisoa da oraindik ere ULMAren nortasun bereizgarri nagusietako bat, baina giza kapitala ahaztu gabe, pertsonen garapen profesionalaz eta pertsonalaz ere arduratzen baita.



ULMA PIPING

ULMA Piping berriro izan da Tube Dusseldorf 2018 azokan



ULMA Pipingek sektorearen azokarik garrantzitsuenen parte hartu du, "Tube" Dusseldorf, joan den 2018ko apirilaren 16tik 20ra.

Guztira 67 herrialdetako 2.683 konpainiak euren aurrerapen teknologikoak aurkeztu zituzten 16 erakusgelatan, 117.000 metro koadro baino gehiagorekin, eta beste 7.000 m²-ko espazio gehiago 2016ko ekitaldian baino. Nazioarteko azoka horretan parte hartzea derrigorrezko hitzordua da negozioko aktore guztientzat.



Nola edo hala, aurreko edizioaren pabiloia aldatu izanak behartuta, ULMA Pipingek stand berritzaile bat aurkeztu zuen, bi gunerekin: bileretara zuzendutako espazio bat, eta espazio irekiago bat, bisitariak standean sartzeko "gonbita" eginez.

Tube 2018ko edizio honetarako aukeratutako lema izan da "The Reliable Connection" –hau da, "Zure konfiantzazko konexioa"–. Lema horrekin, eta standaren aurrealdean inprimatutako irudiekin, mezu bikoitz bat sortu nahi izan da. Alde batetik, ULMA produktuan izan beharreko konfiantza eta segurtasuna, baina gaur egun enpresa osatzen duten edo bere garaian osatu zuten pertsonenganako konfiantza ahaztu gabe. Mezu bikoitza, bisitari ugari hauteman zutena.

ULMA Pipingek oso balantze positiboa egin du Azokari buruz, bertan izan baitira mundu osoko bezero garrantzitsu gehienak, esperientziak eta etorkizuneko aurreikuspenak konpartitzeko, prezioaren inguruan sortzen den tentsiorik gabe.

Standeko egonaldian euskal gastronomiako produktu tipikoz osatutako menu bat dastatu ahal izan zen.

Petrolioaren prezioaren goranzko bilakaera positiboak inbertsioak handiarazi ditu, eta Oil&Gas merkatuko hainbat proiektu aktibatuta dira, baina inplikaturiko herrialde guztiak ez datoz bat espektatibetan.

ULMA CONSTRUCTION

ULMAk Peruko Santa Rosa Tunela eraikitzekeo proiektuan parte hartu du

Azken urteetan, gobernuko erakundeak lanean aritu dira zirkulazio dentsitatearen arazoak konpontzeko, metro linea berriak irekiz eta errepide zabalagoak eginez.

Santa Rosa muinoa lurpetik zeharkatu eta Rimac eta San Juan de Lurigancho barrutiak lotu dituen bideak arindu egin du zirkulazioa hiriko ekialdetik mendebaldera. Eraikitako bi tuneletako bakoitzak bi errail

ditu, eta 250 m-ko luzera batez beste.

ULMAk Santa Rosako tunela eraikitzekeo proiektuan parte hartu du, bi MK orgarekin, 8,36 m-ko altuera eta 13,20 m-ko zabalarekin, sarrera banatan bat jarrita, obrak errazteko.

MK orgen soluzio estandarrekin, bi tunelak azkar eraiki dira, eta bezeroarentzako kostuak murriztu. MK egitura eramangarria eta MK kofratua orga mugikor batean uztartuta, 6 n-ko tarteak egin ahal izan dira 7 orduko hormigonatuarekin. Gainera, metalezko panel kofratua erradio desberdinetara doitu da eta, ondorioz, beste geometria batzuetan ere erabil daiteke, kurbatura aldatuta besterik gabe.



ULMA AGRICOLA

ULMA Agricolak 5Ha negutegi baino gehiago instalatu ditu Asia Erdialdean

Uzbekistanek klima leun kontinental dauka, ur hornidurarekin eta egun eguzkitsu askorekin. Horrekin batera, gobernuak, gazte ekintzaileak ekoizpen lokalerantz animatu nahi dituen, herrialdeko nekazaritzaren garapena sustatzen du, eta negutegien eskaera handitu du.

Azken urtean, ULMA Agricolak 5 Ha baino gehiago instalatu ditu Asia erdialdeko herrialdean, eta bere presentzia sendotu du, produktuen kalitateari eta sare komertzialaren profesionaltasunari esker.

ULMA Agricolak proiektuetako bakoitza diseinatzen du, herrialdearen baldintza klimatikoetara eta laborearen ezaugarrietara egokituta, eta bezero bakoitzaren baliabideak eta beharrak kontuan hartuta.

Uzbekistango bezeroei dagokienez, barazkiak landatzeko erabiliko diren instalazio hauetarako –batez ere tomate

hidroponikoak–, multikapera gotikoaren modeloko egiturak bideratu dira, superzenit aireztapen, kamera bikoitz, pantaila termiko eta birzirkulatuzaileekin. Kasuren batean, instalazioa osatzeko, ureztatze ekipamenduak, ur bidezko kalefakzioa eta fog systema jarri dira. Instalazio guztiak azken teknologiarekin hornituta daude: tenperatura eta

hezetasunaren kontrola, ureztapen ongarrirua, estazio klimatikoa, etab. Hori guztia automatismoen bidez kontrolatuta, zeinek jarritako sentsoreen bidez jasotako informazioa ekipamenduei eragiten dieten, maila egokiak mantentzeko eta, ondorioz, errendimendu handiagoa lortzeko, bizkortasuna, eta kultiboaren kalitatea.



ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek 230 milioi euro lortu ditu datozen bi urteetarako eskaeretan

ULMA Handling Systemsen 2018 eta 2019ko zorroaren zifra datu historikoa da kooperatibarentzat, eta 2016koarekin alderatuta %167 handiagoa da.

Kanpoan biziki jardutearen ondorioz, eskarien %62 nazioarteko merkatuetatik

datoz. Hainbat kontratu lortu, esaterako, Intermarche banatzaile frantziarrarentzat, Samseng paper fabrika argentinarrarentzat, edo Carnicas Tello haragi ekoizlearentzat.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA hormigoi polimerozko fatxada aireztatuak Malagako Green Ray eraikinean



ULMAKO SOLUZIOAK BALDINTZA TEKNIKOAK BETETZEN ZITUEN ETA TEKNOLOGIKOKI EGOKIA ZEN MATERIALA ESKAINTZEN ZUEN

Green Ray eraikina Andaluziako Teknologia-parkean dago, Malagako Unibertsitate campusean. **Enpresa inkubagailua da,** orientazio teknologikoa duten neurri desberdineko bulegoekin osatutakoa, ekintzaile berrientzat eta jada finkatuta dauden enpresentzat.

Fatxada aireztatua eraikineko paramentuen kanpoalderako estaldura sistema bat da, estaldura eta isolamenduaren artean aireztatutako ganbara uzten duena. Sistematik eraginkorra da eraikinen isolamendurako, desiraezinak diren zubi termikoak eta kondentsazio arazoak kenduta. Horregatik eta beste arazo batzuegatik, proiektuaren arduradun diren arkitektoek, Rafael Martin eta Isabel Camara, hasieratik aukeratu zuten sistema izan zen "gorputzaren

goiburuararen estaldurarako, isolamendu termikorako eraginkorra delako".

Eraikinen estetikari dagokionean, proiektu honetarako aukeratutako amaierak **lur testura** duten plakak izan dira, krema-moka tonuan. Testura horrek landutako lurraren eta denborak zizelkatutako harriaren itxura naturala du, justu proiekturako behar zena: "harri itxurako materiala bilatzen genuen, dimentsio zabalekoa eta sendotasun ideia emango zuena, lokalen gorputzarekin kontrastea eginez, metalezko txapa eta beiraz egindakoak, arintasuna transmititu behar dutenak. Hormigoi polimerozko estaldura aukeratu zen, arbel-itxurako amaierarekin, bila genbiltzan efekturako egokia".

Rafael Martin eta Isabel Camara arkitektoen arabera, obra honetarako ULMA Architectural Solutions aukeratzeko arrazoa honakoa izan zen "aukera desberdinak aztertzekeo merkatu azterketa egin ondoren, ULMA Architectural

Solutionsek betetzen zituen baldintza teknikoak, horrez gain, teknologikoki egokia zen materiala eskaintzen zuen". **Arkitektoak oso pozik daude** amaierako emaitzarekin, fatxada "itxura bikaineko fatxada da, nahi genuen irudia eta baldintza teknikoak betetzen dituen: iraunkortasuna, aldaezintasuna eta fatxada aireztatua izateko egokitzapena".



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA kanalak Orleanseko ospitalean, Frantzia

MULTIV SISTEMAKO KANALAK SARETA ARTEKATUAREKIN OSPITALEAREN INGURUETAN INSTALATU DIRA

Orleanseko eskualdeko ospitaleak 1.300 ohe ditu, abangoardiako instalazio teknikoak barne. Orleanseko erdigunetik 10 km-ra kokatua, inbertsio handia izan da Centre-Val de Loireko eskualdeko herritarrentzat, izan ere, **ingurumen kalitate handiko eskualdeko lehen ospitalea** izateko diseinatu da. Inguru osasuntsua eta eroso eskaintzeko asmoz, arkitektura bioklimatiko, ekologiko eta ekonomikoaren oinarriak hartu dira kontuan.

ULMA Architectural Solutions partaide izan da proiektu honetan bere drainatze sistemetakoa bat instalatzeko ospitale inguruetan. Aukeratutako sistema **MULTIV+100** modeloa izan da, ura abiadura handiagoan drainatzeko garatu zen, horrela kanalaren auto-garbitzea efektua hobetuz. Halaber, oinezkoentzako gune, merkataritza gune eta aparkalekuetarako sistema egokia denez, aukera ideala zen ospitale kanpoalderako.



SARETA ARTEKATUA: ESTETIKA ETA FUNTZIONALITATEA

Sareta Artekatuak drainatzea ikusezin egiten du zoladuran ezin hobe integratzen baita. Drainatze sistema "estetiko" bilakatzen du, multzoaren armonia bisualarekin ez apurtzeko. Horrelako sareta mota erabiltzea, zeina itxura apalarekin ur-bilketa modu dotorean konpontzen duen, estetika eta funtzionalitatea ezin hobe konbinatzen duen soluzioa da.

ULMA AGRÍCOLA

ULMA Agricola Greentech 2018 azokan

ULMA Agricola erakusle moduan joan zen Greentech azokara, ekainaren 12tik 14ra, Amsterdamen.

Greentech azokak oso proiektu internazionala dauka, eta sektoreko erreferentzia da laboreen babesari eta ongarriei dagokienez. Aurtengo edizioan 115 herrialde baino gehiagotako 450 erakusle elkartu ziren, eta 11.000 bisitari inguru, harremanetan jartzeko eta egunean jartzeko baratzazaintzarako garapen teknologiko eta berritzaileen inguruan. Azoka bi urtean behin egiten da, eta baratzeko ekoizpen katearen arazoaren lehen etapetan jartzen du arretagunea, horiek baratzazaintzat interesgarriak baitira. Plataforma ezin hobea harremanetan jartzeko, ideiak elkartrukatzeko eta negozioak egiteko.

Horrez gain, ULMA Agricolako langileak azokan egoteak aukera eman

zuen, instalatutako proiektuetan eskaintzen diren berrikuntzak eta soluzioak erakustez gain, partekatutako iritziak eta etorkizuneko

proiektuak, ohikoa ez bezalako marko batean, bai bezerogaiekin, bai etxearen bezero ezagunekin.



ULMA HANDLING SYSTEMS

Sintoplast pintura enpresa argentinarrak atek irekiko dizkio automatizazio integralari ULMAk diseinatutako soluzioari esker

ULMA Handling Systemsek ingeniariaritzaren intralogistikoko proiektu integral bat diseinatu du prozesu osoa automatizatzeko, produktuak biltegian jasotzen direnetik, eskariak prestatu eta bidaltzeraino.

Horrenbestez, Sintoplastek bere stock ahalmena handituko du 13 milioi litro pinturatar. Gainera, egunean 250.000 litro bidaltzetik 500.000 litro bidaltzera iritsi ahal izango da, bere bezeroen beharrak asetzeko eta zerbitzua hobetzeko.

Sintoplasten instalazio berrietan biltegi automatiko bat egongo da, 38 metro baino gehiagoko palletekin, eta edukiontzi txikiarako biltegi automatiko bat, bolumen txikiagoko produktuarako, eta biltegi biak eskariak prestatzeko gunearekin konektatuta egongo dira, STV garraio automatikoaren bitartez.

Eskariak "produktua pertsonarengana eramatearen" kontzeptuarekin prestatuko dira, Pick to Light gailuen laguntzaz, eta, beraz, Sintoplasten Argentinako instalazioetan egunean 500.000 litro ere prestatu ahal izango dira.

Gaur egun, enpresak hogeita produktu lerro eta 4.800 artikulua baino gehiago ditu, Argentina osoan egunero banatzen dituenak. Sintoplastek 2019an estreinatuko du ULMA Handling Systems ingeniariaritzaren logistikokoak garatutako intralogistika integrala.



ULMA CONSTRUCTION

Tauron Arena, Poloniako kirol pabiloirik handiena

Urte asko proiektuan egon ondoren, Poloniako kirol pabiloirik handiena eraiki da Krakovian. Guztira, ia 97.000 m² dauzka, eta kirol gune nagusiaren area 4.300 m²-koa da.

Fatxada 27 m-ko altuerara iritsi da eta jokalekutik estalkira arteko altuera 41 m-koa da. Estalkiari eusten dio egitura, 130 m-ko baxa duena, oso eraztun handi bat da, hormigoi armatuzko 40 zutaberen gainean muntatuta.

Oso lan itzela izan da, estaldura soluzio askorekin, horietako bat eta ikusgarriena izanik 400 m-ko zirkunferentziako eraztunaren apeoa, 40 m-ko altueran. Eratzuna 40 m-ko altueran zurkaiztu ahal izateko, zinzria sendo

bat erabili da; eraztunaren azpiko sabai sekundarioak, berriz, altuera txikiagoak dira eta hori dela-eta dorre eta **ALUPROP** eskorekin zurkaiztu dira.

Zutabe zirkularrak, 22,65 m-ko altuerakoak, **CLR enkofratu metalikoarekin** gauzatu dira. Obrak amaitu arte, zutabeak, eraztun azpiko karga hormekin batera eraztunari eusten dion egitura osatzen dutenak,

ORMA tenkagailuen bitartez bermatu dira. Konplexua geometria bat baino gehiagoko hormekin diseinatu da. Horma zuzenak eta inklinatuak **ORMA enkofratu bertikalarekin** eraiki dira. Eta horma kurbatuak egiteko, ordea, **BIRAMAX** enkofratua erabili da. Lauzak **ENKOFLEX** enkofratuaren gainean hormigoitu dira, **EP, ALUPROP eskorekin edo zinzriadun dorre sendoekin** zurkaiztuta.



Obran, gainera, **BRIO** aldami multidirekzionala erabili da, burdineria lanak egiteko dorre mugikorak muntatzeko. BRIO ere erabili da lanerako plataforma handi bat eraikitzeko, zeinak 70 m-ko luzera eta 670 m²-ko area zeuzkan. Horrela instalatu ahal izan dira berokuntza eta aireztapen sistemak pabilo barruko tribunetan.



ULMA PACKAGING

Ate irekiak ULMA Packagingen

2018KO EKAINAREN 9AN ULMA PACKAGINGEKO ATEAK ZABALIK IZAN GENITUEN BERTAKO LANGILEEN SENITARTEKO ETA LAGUNENTZAKO

Ez ohiko jendea ikusi ahal izan zen ULMA Packagingen Oñatiko bi eraikinetan ekainaren 9an. Goribar eta Garibaiko lantegietako ateak ireki eta langileon senitarteko eta lagunek non lan egiten dugun ikusteko aukera izan zuten. Horretarako zenbait astez lanean aritu ziren hainbat pertsona guztia antolatzen: ibilbidea prestatu, segurtasun neurriak hartu, gonbidatuak taldetan banatu, taldeetako gidariak izendatu... Ikusten ez diren hainbat lan egin eta gero, guztia prest zegoen larunbatean.

Goizeko hamarrek baino lehen hasi zen lehen bisita eta hamabietan izan zen azkena, guztira 500 pertsona baino gehiago pasatu zirelarik bi lantegietako tailerretatik. Bisitak Goribarko eraikinean hasi ziren, egiten duguna azaltzen zuen azalpen txiki batekin. Hortik aurrera, ordu betetik gorako ibilbide batean, gure makinak nolakoak diren eta nola egiten ditugun azaldu zitzaizkien bisitariei. Tartean, gure bezeroek egiten dituzten produktuak ere erakusgai egon ziren.

Makinei buruzko iritzi eta galdera asko egon baldin baziren ere, arrakastarik handiena gailetak ontziratzen dituen

makinak izan zuela esan daiteke, batez ere, bisitatu gintuzten umeei galdetzen badiegu. Arreta handiz entzun zituzten emandako azalpenak eta arreta handiagoz ikusi zuten nola ateratzen ziren gailetak makinatik. Gailetak lurretik hartu eta jan nahi izan zituenek ere izan zen.

Ibilbidearen ondoren, mokadutxo bat eskaini eta azkenik talde bakoitzari argazki bat atera zitzaion, era honetan bisitari amaiera eman.

Antolakuntza lanek lan handia eskatu bazuten ere, partaideak pozik agertu ziren, batez ere, jendearen erantzuna ikusirik. Ez da erraza izaten horrelako ekintza bat antolatzea eta beharrezkoak diren gai guztiak kontuan hartzea, baina bisitariak pozik joan zirela ikusita, ahaleginak merezi izan zuela uste dute antolatzaileek.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiegu era batera edo bestera egun hau antolatzeko laguntza eskaini diguten guztiei, bai ikusten diren ekintzak eginez, bai ikusten ez direnak eginez, beraien ahaleginik gabe ezinezkoa izango zelako ULMA Packagingeko ateak zabaltzea. **MILA ESKER GUZTIE!**



ULMA HANDLING SYSTEMS

Intralogistika baita ere edari apardunetarako

SOLUZIO INTRALOGISTIKOAK BILTEGI AUTOMATIKO BAT DAUKA, 1.000 PALLET BAINO GEHIAGOKO AHALMENAREKIN, TRANSJASOGAILU BATEZ KUDEATUTA

Edari apardunak banatzen dituen MAJOR ISD enpresak (JÄGERMEISTER likorearen eta beste edari apardunen zein edari ez alkoholikoen Frantziako banatzaile eskusiboa da) intralogistikako soluzio integral bat dauka gaur egun, ULMA Handling Systemsen garatua.

ULMA Handling Systemsek soluzio guztiz pertsonalizatu bat garatu du, Cognac Major ISD firmaren beharrak kontuan hartuta. Soluzio intralogistikoa biltegi automatiko bat dauka, 1.000 pallet baino gehiagoko ahalmenarekin, transjasogailu batez kudeatuta, eta biltegiko hainbat pasillotan lan egin ahal izateko diseinatuta dago.

Gainera, frantziar etxeak eskariak prestatzeko postu bat dauka, eta, horren bidez, aldi berean hainbat eskari prestatu daitezke, picking denbora murriztuz.



ULMA TALDEA – PROMOZIO BERRIAK

ULMA – ICQO hitzarmena “RETINAL PROIEKTUA” garatzeko

Joan den apirilean ULMAK hitzarmen bat izenpetu zuen Oftalmologiako Institutu Klinikoa Kirurgikoarekin (ICQO), elkarrekin diagnostikorako hainbat tresna garatzeko, erretinaren esparruan.

2018 honetan zehar, ICQOko 6 laguneko talde bat ULMAREN RETINAL proiektua garatzen ariko da. Iñigo Corcostegui oftalmologoak eta bere taldeak besoz beso lan egingo dute ULMako langileekin proiektuaren hainbat fasetan, **soluzio integrala oftalmologiko bat lortzeko, osasunaren sektorearen gaur egungo beharrei erantzuteko.**

ICQO Bilbon sortu zen, 1995ean, Gonzalo Corcostegui eta Juan Duran

de la Colina oftalmologoaren eskutik, eta irakaskuntzan diharduen zentro oftalmologiko bat da, Euskal Herriko Unibertsitateari elkartua. Zortzi espezialitate oftalmologiko lantzen ditu (Errefrakzioaren alterazioak, Erretina-bitrea, Kornea eta

begiaren azalera, Glaukoma, Ikusmen urria, etab.), eta I+G unitate bat dauka hainbat ikerketa lerroekin; hain zuzen, bertatik hainbat patente sortu dira, esaterako, kornea ebaketarako tresna bat, edo begi barneko injektioetarako sistema bat.



ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Enpatia eta entzute aktiboaren inguruko gogoeta ULMA Architectural Solutionseko bazkideen arteko talde dinamikan

Jardunaldia hasteko, bazkideek Antonio Canceloren hitzaldia entzuteko aukera izan zuten, Eroski Kooperatibaren sortzailea eta Mondragon Taldeko lehendakari ohia. Cancelok bere historia partekatu zuen bertaratutakoekin, Eroskiren hasierak eta **kooperatibako balioak** eta enpresako sustatzaile eta goi-kargudun izatearen bizipenak azaldu zituen.

Ondoren, elkartutakoek enpatia eta entzute aktiboa lantzeko aukera izan zuten talde txikitik banatuta eta dinamizatzaile batzuek bideratutako dinamikan. ULMAko profil profesional desberdinak irudikatzen zituzten fikziozko bi pertsonaiekin enpatizatu eta horien inguruan hausnartzeko aukera izan zuten.

Helburua bestearen tokian jartzea zen bere mezua entzuteko, ulertuta enpatia gure arteko ulermena eta talde lana errazteko balioa dela. Amaitzeko, **parte hartzaile bakoitzak bere konpromisoak idatzi zituen**, egunerokoan enpatia eta entzute aktiboa indartzeko.



Ekitaldiko bideoa ikusteko:
https://youtu.be/AkRY_s382aE

ULMA EMBEDDED SOLUTIONS ULMA Embedded Solutions IoT Week-en

Ekaineko lehen astean IoT urteko biltzarra egin zen (Internet of Things), Bilbon. Bertan IoT teknologiek eta berrikuntzekin inplikaturiko mundu osoko profesionalak elkartu ziren.

ULMA Embedded Solutionsen aukera baliatu zuten IloT-ren (Industrial IoT) inguruko ahalmenak eta zerbitzuak erakusteko. **Neurrira egindako soluzio osatuak eskaintzen dituzte: ezaugarri bereziak dituzten sentsoreak, datuak jaso eta prozesatzea, edo monitorizazio eta analitikako aplikazioen garapena.** Horren adibide moduan, bezeroentzat garatu dituzten soluzioetako batzuk eraman zituzten, oraingoan Kortarentzat eta Edibonentzat egindakoak.

Korta liderra da torloju boladunen fabrikazioan, eta bere torlojuen egoera neurtzea behar zuen, mantentze lan prediktiboa egin ahal izateko. Torlojuan integratzen den haririk gabeko sentsore bat garatu da, sentsoreak lortutako datuak



jasotzen dituen nodo bat, nodoaren datuak jasotzen dituen galdetzaila bat eta, azkenean, monitorizatzeko web aplikazioa. Elementu horiek guztiak zein ingurune industrialetan instalatuko diren kontuan hartuta diseinatu eta garatu dira.

Edibonek, berriz, ekipamendu didaktiko teknikoak eta ingeniarietakoak fabrikatzen ditu, eta bere aplikazioa "cloud" plataforma batean integratzea behar zuen, bere gailuen erabilera kudeatu ahal izateko eta urrutitik sartu ahal izateko, gailuekin jardun eta monitorizatzeaz gain.



ULMA ORGA JASOTZAILEAK

ULMA Inoxtruckek gela zurietarako ekipamendu higienizagarriak aurkeztu zituen FOODTECH E HISPAC 2018 azokan

Beste edizio batean berriro ere, ULMA Inoxtruck Hispack azokan izan zen, Espainiako merkatuaren erakusle nagusia, elikagaien industriara zuzendutako teknologiei dagokienez. ULMA Inoxtruckek, 24 herrialdeetatik etorritako 843 erakuslerek batera, bere ekipamendu higienizagarrien gama osoa aurkeztu zuen; gainera, bere standean, bereziki nabarmentzen zen bere transpaleta, pisatzeko sistema duena, eta baita ere EBT 105 iraultzeko makina edo film bobinak manipulatzeko soluzioen gama.

Inoxtruckeko Area Manager Gorka Imazen hitzetan, "Hispackek aukera ematen digu gure burua ezagutarazteko eta bezeroei azken nobedadeak aurkezteko, kargak manipulatzeko ekipamendu higienizagarrien arloan". ULMA Inoxtruckek etengabe berritzen du, merkatuak eskatzen dituen soluzioei erantzuteko. Horrelako erakuslehoek ahalbidetzen digu lortu

ditugun lorpenak erakusteko, eta bezeroekin zuzeneko harremana izateko aukera ematen digu.

Hispacken hurrengo edizioa 2021ean egingo da, eta hor ere beste aukera bat egongo da lortutako aurrerapenak erakusteko.



ULMA AGRICOLA

ULMA Agricolaren Mexikoko filialaren kokapen berria

ULMA Agricolak orain dela 15 urte baino gehiago filial bat dauka Mexikon, eta, sektorearen eskaera gero eta handiagoaren ondorioz, bere egitura handitu eta kokapena aldatu du.

Gaur egun, Miguel Hidalgo delegazioan kokatuta dauden bulego batzuk ditu. Herrialdeko enbaxada gehienak barruti horren barruan daude, eta halaber aipa daiteke gehien aurreratu den delegazioa dela, ekonomikoki zein estrukturaliki; horrenbestez, kolonia ezagun horretan negozio bolumen handia sortzen da, eta erabakiak hartzeko gune bihurtu da.

Horrez gain, bodega edo biltegia Queretaron dago: bertan dago herrialdeko teknologia altuko nekazaritza jarduerarik handiena, eta herrialdeko zonalde desberdinetako errepideen bidegurutzea da.

Kokapen horretatik, ULMA Agricolak hurbilago eta azkarrago erantzun nahi die Mexikoko errepublikako hainbat estaturi, tartean egonik Guanajuato, Queretaro, San Luis Potosi, Jalisco, Aguascalientes, Morelos, Sinaloa eta Michoacan, non herrialdeko barazki eta lore ekoizle handiak dauden.

Instalazioak merkatuaren beharretara egokitu diren bezala, filiala antolatzeko egitura ere hazi egin da, eta duela gutxi proiektuen zuzendari bat eta komertzial bat gehitu dira Erdialdeko Amerikarako.



Bulegoa:

AV. EJERCITO NACIONAL N° 505, DESPACHO 601
COL. GRANADA
DELEGACION: MIGUEL HIDALGO
C.P. 11520, CD. DE MEXICO. MEXICO.



Biltegia:

BODEGA COMERCIAL N° 5,
CALLE: TECNICOS N° 54
COL. SAN PEDRITO PEÑUELAS
C.P. 76148 - QUERETARO, QRO

ULMA CONSTRUCTION

MONDRAGONek praktika ontzat jo du ULMA Constructionen 4.0 Industriarekiko egokitzapena

4.0 Industriaren kontzeptuari 4.0 Industri iraultza edo Industria Adimenduna ere esaten zaio, eta eskatzen du **tresna adimendunak** erabiltzea **industriako prozesuak optimizatzeko laguntza gisa**. Ekoizpen bitartekoak antolatzeko modu berri bat dakar, enpresek ekoizpen premia eta prozesuetara gehiago egokitu ahal izateko eta baliabideak modu efizienteagoan esleitu ahal izateko.

Gaur egun, ULMA Constructionek **etengabe monitorizatzeko sistema bat dauka ezarrita, eragiketa bulegoetan kokatutako bistaratze pantailen bitartez**, ekoizpenaren aurrerapena, ekoizpen arlo guztien baliabideen egoera eta fabrikazio aginduak koordinatzeko beharrezkoa den informazioa eduki ahal izateko.

2018ko urte honetan ULMA Constructionek apurka-apurka digitalizatzeko proiektua abiarazi du **ekoizpen datuak denbora errealean atzitzeko eta monitorizatzeko**, IloT SAVVY plataforma fabrikazioko hainbat zelulatan ezarritik.

Helburua da **datuak bistaratzeko software tresna bat prestatzea, langileei, teknikariei eta kudeatzaileei informazio arina eta iturri askotakoa eskaini ahal izateko**. Proposamenak aurrerakuntza du **ekoizpen datuak bistaratzeko pantailak zabaltzea plantan**, prozesuetako gardentasuna areagotzeko eta proiektu komun honetan parte hartzen duten pertsona guztien konpromiso eta lankidetzaren dinamika sortzeko.

ULMA Constructionek 4.0 industriarako aldaketarekin bat egin du, eta aldaketa horretan aurrerakuntza da eskuragarri dagoen informazioa atzitzeko eta zentzuz eta denbora errealean tratatzea erraztuko dituzten bitartekoaren integrazioa, **ekoizpen sistema adimendunago eta lehiakorrago** baten garapena bermatzeko.



ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun zorrotzak, talentuarekin eta esfortzuarekin horma guztiak botatzen direla erakutsiz.

Mendigoizale petoa

Mikel Diez, ULMA Packaging

Mikel Diez ULMA Packagingeko zentro teknologikoko industrializazioko teknikaria da duela 7 urtetik, eta aire zabalean praktika daitezkeen kirol guztien zalea da, baina azken urteetan goi mendietan jarri du arretagunea.

Mikelek mendiaren alde duen grina gurasoek eskiatzeko transmititu zioten zaletasunetik dator. Mendiko eski praktikatzan hasi zen, eski estazioetako saturazioetatik ihesi, eta horrek mendiaren neguko mundua ikusarazi zion. Aste Santu batean, familiarekin Alpeetan eskiatzen ari zela, Mont Blanc ikusi zuen lehen aldiz, eta bere buruari agindu zion egunen batean bertara igoko zela.

Zorionez, bikotekideak zaletasuna partekatzen du, eta aurrera egin dute elkarrekin: lehendabizi etxeko mendiak, gero Pirinioak, Alpeak, Andeak, Himalayara iritsi arte. Mendiaren aldeko grina horri esker, bestela ezagutzeko aukera eman die, hala nola, Peru, Bolivia, Txile, Kazakhstan, Kirgizistan, Nepal edo India, eta urruneko eskualdeak ezagutu dituzte, zirkuitu turistiko eta komertzialetatik aparte, gugandik oso desberdinak diren jendeak eta kulturak lehen eskutik

ezagutzuz; horri buruz dio zoragarria dela, eta oso aberasgarria.

2017an, Urretxuko adiskide on batekin batera, Kaxmirreko Indiako urruneko mendi batera abiarazi zuen espedizioa, NUN 7135m, eta Indiako enpresa bati kontratatatu zion logistika konplexua oinarritzko kanpamenturaino, bere espedizioa eta 4 indiarrez eta 4 sherpaz osatutako beste batekin elkartuta. Ekaitz indartsu batek 3 egun eta 3 gau bakartuta utzi zituen, gero eta okerrago, ez aurrera ez atzera egin ezinik, ertz estu batean, non juxtu denda jartzeko lekua baitzegoen, 100 km/h-ko haize bolada biziekin. Gainera, jatekorik gabe geratzen ari ziren, eta arrazionatu behar izan zuten, "oso gogorra izan zen, batez ere, psikologikoki. Burua oso garrantzitsua da horrelako espedizioetan". Azkenean dena ongi atera zen, eta mendiak erraztasunik eman ez bazien ere, tontorrera iritsi ziren, eta horrela gainditu zuen bere lehen

7000koa.

"Zoragarria da mendian altuera horretan bakarrik aurkitzea, ez da batere ohikoa, eta oso gauza berezia izan zen".

Espediziotik itzuli zenean Takolo beka eman zioten, ospe handiko beka izan ere, eta hori guztiz ustekabeko sorpresa izan zen, Mikelek dioenez. *"espedizio biribil baterako ahal zen amaierarik onena, bizitza osorako oroitzapen gogoangarria".*

"Zaletasun honen gauzarik garrantzitsuenak izan da nire bizitzari ekarri dion guztia, gauza asko ikusteko modua aldatzen dizu, eta jende asko ezagutzeko aukera eman dit, gaur egun niretzat inportanteak diren pertsonak", kontatzen digu Mikelek.

Espedizioetarako behar den egoera fisikoa lortzeko eta mantentzeko, Mikelek beste kirol asko praktikatzan ditu, beti ingurune berean: haitzeko eskalada udan eta izotzetan neguan, trail running, mendiko bizikleta, mendiko eskia... urtaro



bakoitzean dagokiona. *"Uste dut negua noiz iritsi zain egoten diren gutxienetakoa naizela, baina asko disfrutatzen dut urteko urtaro bakoitzean",* azaldu digu.

Joan den abenduan jaio zen Enaitz, lehen semea, eta horrek parentesi txiki bat eginarazi dio. Hilabete batzuk daramatza ia mendirik ukitu gabe, eta, dioenez, *"esango nuke horrek mesede ere egin didala".*

Goi mendietako espedizioek hilabete bat edo bi behar dute, eta hori eta lana txertatzen zaila da, baina, dioskunez, *"araudiaren barruan kokatzen ziren planteamenduak egin izan ditudanean, zuzeneko arduradunek ahal izan dituzten erraztasun guztiak eman dizkirate beti, eta horregatik oso eskertuta nago".*

Etorkizunean, Mikelek ez du bazterten 14 8000koetako bat egitea, baina gauza asko lotu beharko lituzke saiatzeko, eta aitortzen du ez dela erraza.



Talentuaren kudeaketa, erronka berri bat ULMArentzat

Gaur egun, giza baliabideetako gure departamentu asko erabat murgilduta daude denok kezkatzen eta arduratzen gaituen zeregin batean, hau da: Talentua erakarri eta atxikitzea. Hori dela eta, gure Negozioetako giza baliabideetako arduradunak elkarriketatzeari ekingo diogu, beren iritzia agertu eta konta diezaguten nola ari diren bizitzen, Talde mailan oro har, eta beren Negozioan bereziki. Alde batetik, Talentua erakarri eta gurera atxiki beharra, eta, bestetik, gure bazkide eta langileen artean lehendik dagoen Talentua garatu beharra.



“lotura egonkor eta iraunkorrak ziurtatzen saiatzen gara, enpresek zein eskolek lan egin dezagun prestakuntza akademikoa eta lan bizitza bateratzeko”.

AINHOA FERNANDEZ.
ULMA Packagingeko Pertsonen Kudeaketako zuzendaria

« Aztertzen gabiltzan gaiari dagokionez, une honetan zelakoa da ULMA Packagingek daukan premia? Gaur egun lehentasuna da Negozioarentzat? »

ULMA Packagingen, duela 4 urtetik hona, hazkunde fase batean gaude, eta gure apustu estrategikoa da, hain zuzen, datozen urteetan ere hazten jarraitzea. Hori lortzeko, pertsonak kudeatzeko departamentutik eta beste arlo batzuetatik, 2016tik, talentua kudeatzeko eta erakartzeko proiektuetan murgilduta gaude, alderdi hori lehentasuna baita guretzat.

Hainbat erronka teknologiko ditugu, soluzio berritzaile ugari, nazioarteko proiektio handia... horren guztiaren ondorioz, enpresa lehiakorra gara, baina badakigu gure etorkizunaren zutabea proiektua posible egiten duten 1.500 lagun baino gehiago direla. Beraiek dira protagonistak.

Gure helburuetako bat da talentua erakartzearen alde egitea, hazten jarraitzeko. Eta, horretarako, 2018an zehar 150 pertsona baino gehiago sartu beharko ditugu, baina baita ere beharko dugu gure lantaldearen lankidetzaren eta konpromisoa, ULMA Packagingen pertsona bakoitza garrantzitsua baita. Horregatik, gure lehentasunetako bat talentuaren kudeaketa da, gure helburuak betetzeko langile bakoitza profesionalki garatu beharko dugu eta, aldi berean, pertsona berriak erakarri, gurea bezain proiektu anbiziotsu batera.

« Talentua da jarduera bat bikain ikasi edo lantzeko aukerak ematen diren eta tasuna; baina, zure ustez, badakigu enpresako pertsona bakoitzaren tasunak identifikatzen eta indartzen? Nondik uste duzu abiatu behar duela identifikazio horrek, kooperatibatik edo gure ingurune akademikitik? »

ULMA Packagingen uste dugu mundu akademikoak harremana izan behar duela enpresarekin; horregatik, prestakuntza zentroekin lankidetzan aritzearen alde

egiten dugu. Horrenbestez, lotura egonkor eta iraunkorrak ziurtatzen saiatzen gara, enpresek zein eskolek lan egin dezagun prestakuntza akademikoa eta lan bizitza bateratzeko.

Ingurune akademikitik ezagutzak eta gaitasunak barneratzea eskaintzen diete pertsonari, norberaren talentua identifikatu ahal izateko. Aitzitik, gure lana izango da lankidetzaren eta konfiantzaren testuinguru bat sortzea, pertsona bakoitzak leku bat aurkitu ahal izan dezan bere talentua garatzeko eta bere ezagutzak eta esperientziak aplikatzeko. Gainera, etengabeko prestakuntzaren alde egiten dugu, gure pertsonen euren arloko profesionalik onenak izateko aukera izan dezaten. Horregatik, garrantzi handia ematen diogu metodoak eta prozesuak eraikitzeari, gure barne talentua detektatzeko eta garatzeko.

« Zein balorazio egiten duzu ULMA Taldeak arlo honetan egiten duen ekarpenaz? »

ULMA Taldea batzen gaituen marka euskarria da, eta posizionamendu berezitu du merkatuan. Esan dezakegu, arlo kooperatibistara ez ezik, kanpora ere iristea ahalbidetzen digula, eta horrek gure aukeren abanikoa zabaltzeko aukera ematen digu. Horregatik, Negozio guztiak taldean lan egiten dugu, gure lana enplegu azoketan bultzatuz eta gure sare sozialen estrategia bateratuz.

« Antzematen duzu sintoniarik gainerako Negozioekin? »

Zalantzarik gabe, ULMA Taldeko Negozio guztiak antzekotasunak ditugu, bakoitza bere errealitate eta berezitasunetik, baina elkarrekin etorkizuneko proiektu bat eraikiz. Horretarako, elkarrekin parte hartzen dugu jarduera askotan, hala nola enplegu azoketan, ikastetxeetako bisitetan... Badakigulako Negozioen arteko lankidetzaren dela gure pertsonari balio berezitu bat eskaintzeko modua.

« Itxura denez, negozio estrategia on bat edukitzearekin ez dugu nahikoa; horrekin batera, marka enplegatzaile gisa definituko gaituen Marketin eta Komunikazio estrategia bat ere eduki beharra dago. ULMA Packagingen, zelan gurako zenukete zuen xedeko publikoak zuek ikustea arlo honetan? »

Nahi genuke lan egiteko erreferentziak erakunde izatea, non pertsonak zainduta sentituko diren, konprometituta, beraien proiektu sozio-enpresarialagatik harro.

Egiten dute lana proiektu laboral lehiakor eta nazioarteko moduan hauteman dezaten. Enpresa batean, non lankidetzaren, prestakuntza edo lan giroa bikaintasuna bilatzea edo berrikuntza teknologia bezain garrantzitsuak diren.

« Bukatzeko, zure ustean gurean lehendik daukagun talentua sortu eta garatzearen alde egin beharko genuke, ala kanpoko talentua erakartzearen alde? Edo kontua oreka topatzea da? »

Uste dugu elkar elikatzen duten bi lan ildo direla, elkarrekin bizi behar duten bi apustu estrategiko. Hori lortzeko, gure barne talentu guztia garatu behar dugu, erabiliz etengabeko garapena, barne promozioa, diziplina askoko talde lana... testuinguru egoki bat sortzeko, non pertsonak konprometituta sentituko diren, beraiek izateko gure markaren enbaxadore nagusiak. Ondorioz, kanpora marka erakargarri baten irudia transmitituko dute, esplikatzeko ULMA Packagingen lan egitea zergatik den etorkizuneko apustua.

ULMA Taldeak bere Marka Enplegatzailearen irudi berria aurkeztu du bere Negozioak bultzatzeko

Taldearen Marka Enplegatzailearen irudi berria aurkeztuta amaitu da lanaren lehen fasea, ULMA Taldeko Marka eta Komunikazio arloak eta Pertsonen Kudeaketa arloak gidatuta, Negozio guztien inplikazioarekin eta, batez ere, gure bazkide eta langileen parte hartze aktiboarekin.

Erronka zen Talde desberdin baten Balioak erakustea, Gizarte Konpromisoarekin, eta pertsonen aldeko apustu argi batekin. Emaiza moduan, euskarri eta eduki berriak lortu ditugu, garai berrietara egokituta, ULMAko Talentua Kudeatzeko proiektua bultzatzeko eta modu efizienteagoan sendotzeko.

> Enplegu orria; leiho berri bat mundurantz

Prozesu honetako elementu aipagarrienetako bat Enplegu Orri berria sortzea izan da (www.ulma.com/eu/eginbat-ultimatekin/), Web Korporatiboaren baitan, mundurantz zabalduko leiho moduan definitu eta diseinatuta, ULMAren Misioa eta Balioak islatzeko, gure nortasun ikurrekin batera, Talde Soziala garen heinean. Enplegu Landing berria zabalkunderako tresna garrantzitsua da, ULMArekin interesa duten etorkizuneko hautagaiek gehiago eta hobeto ezagutu gaitzaten, nor garen eta zer egiten dugun jakiteko. Gainera, elementu egituratzaile moduan funtzionatzen du, gure

Negozioen artean dagoen dibertsitatea ulertzen laguntzeko.

Diseinu erakargarri, garbi eta erabilgarri batekin, ULMA Taldearen Enplegu Landing berriak Gizartearen garapenarekin eta enplegua sortzarekin dugun konpromisoa erakutsi nahi du. Landingaren eginkizunak osatzeko, eta hartzaile izan daitekeen helburuko publiko guztira iristeko, geure bazkide eta langileek beraiek egindako ikus-entzunezko piezetan oinarritu da.



> Kontakizun onen indarra eta istorio onen egiazkotasuna

Bideo berriak irudi zaindu batekin egin dira, eta postprodukzio lan profesional batekin, sinesgarritasun maila handia emateko.

Prozesu horren ondorioa izan da, baita ere, hainbat ideia funtsezko ulertzea; ez dago istorio on bat bezain gauza eraginkorrik, eta, oraingoan, geure pertsonen kontakuta, belaunaldi desberdinetako ikuspegi

Ez dago ongi kontatutako istoriak baino gauza eraginkorragorik, oraingoan gure pertsonen kontakuta, belaunaldien arabera bereizitako ikuspegiak

eskaneatu kode hau zure smartphonearen QR irakurgailuarekin eta sartu enplegu orri berria



Nahia Leibar eta Iñaki Bellido

Ainhoa Fernandez de Arroiabe eta Arantxa Anduaga

María Sendín eta Jonathan Martins

Itxaso Suarez eta Jon Aguiriano



ULMA Taldearen >> enplegu orri berriaren irudia

“ xedea da gure ADN kooperatiboa transmititzen duten istorioak kontatzea

desberdinekin; horrela, ULMA Markaren komunikazioa indartzen laguntzeko, enplegataile izateari dagokionez eta kanpoan hautematen denari dagokionez.

Gaur egun, funtsezkoa da enpresa baten ezaugarri bereizgarriak transmititzen eta hedatzen jakitea, edukien gaineko estrategia erakargarri baten bidez, hurbileko eta publikoak erraz ulertzeko istorioetan oinarrituta. Guri dagokigunez, xedea da gure ADN kooperatiboa transmititzen duten istorioak kontatzea. Finean, ULMAk orain aurkezpen txartel eguneratu eta modernoa dauka, gure burua ULMA Taldean lan egiteko interesa duten pertsona guztien artean ezagutarazteko.



Josetxo Garmendia eta Ezozi Soba

Oskar Berreteaga eta Itsaso Letamendi

Luken Zamakona eta José María

Leire Ugarte eta Aitor Telleria

Roberto Guridi eta Janire Rios

Testigantzak

ITSASO LETAMENDI



Argazki eta bideo saioak oso dibertigarriak iruditu zaizkit, hasieran pixka bat kezkatuta nengoen baina azkenean oso ondo pasatu nuen, batez ere, bideo grabaketan. Argazki saioa ere ondo egon zen, baina gehiago kostatu zitzaidala esango nuke.

Argazkilaria eta bideo grabatzaileak, guztiak oso jatorrak iruditu zitzaidakidan. Horrelako egoera batean berria izanik, oso eroso sentiarazi ninduten.

Gaur egungo egoera ezagututa, beharrezkoa ikusten dut talentua erakarri eta zaintzea. Horrelako kanpainak, beste ekintza batzuekin batera, baliagarriak izan daitezkeela uste dut.

JON AGIRIANO



Nahiko ongi, eramangarriak izan ziren. Gu ez gaude ohituta horrelako ekintzetara, baina bertan lanean aritu ziren pertsonen profesionaltasuna erakustez gain, gertutasuna ere transmititu zuten. Horrela, naturaltasun osoz aritu ginen bai bideoan eta baita argazki saioan ere.

Bai, azken finean, langileon testimonioen bitartez ULMAko egunerokotasuna eta lan errealtatea erakusteko era bat da.

MARIA SENDIN



Bai argazki saioa bai bideo saioa benetan ongi joan ziren, giro profesionalean baina oso atseginean, erlaxatzeko eta gure buruak natural agertzeko. Natxo zoragarria da lanean, ez nuen ezagutzen, eta egiarki ondo sentiarazi ninduen, argazki eta bideo saioan gurekin zeuden gainerako pertsonak bezala.

Uste dut horrelako kanpainak oso garrantzitsuak direla, ULMA ohartuta dagoelako, epe ertainera ez ezik, epe laburrera ere dagoeneko ongi prestatutako eta hezitako pertsonak behar dituela enpresan lanean, eta behar du pertsona horiek ULMARA etorri nahi izatea.

ROBERTO GURIDI



Argazki eta bideo sesioak ez zittuan bape astunak izan nerretzat, ambiente lasaian in zittuan eta bai argazkilariek eta bideoa grabatzen ibili zian pertsonak, jatorrak zittuan.

Horrelako kanpañak onak izan biharko zittuan talentua lortzeko, baña hortarako, kooperatibako desberdintasunak, baloreak eta onurak ondo adierazi eta zabaldu biharko zittuan.

ULMA Taldeak

Euskara kudeatzeko politika orokorrak onartu ditu



ULMAko 100 langilek parte hartu duten hausnarketa prozesuan adostu eta zehaztu dira Euskara kudeatzeko politika orokorrak. Helburua argia da: **ULMAko Euskal Herriko egoitzetako lan hizkuntza euskara izatea eta hori modu proaktibo, progresibo eta integratzailean egin nahi da.**

2017ko udazkenean hasi eta 2018ko martxoan bukatu den prozesuan, kide hauek hartu dute parte: Euskara Batzordeetakoak, Motibazio taldekoak, Euskarazko IKT taldekoak, ULMA Taldeko lehenakariak eta zuzendari nagusiak, eta ULMAko kooperatibetako lehenakariak.

ULMA Taldearen POGUn aipatzen da euskal kultura eta hizkuntza babestu eta bultzatu egin behar direla eta horretarako zehaztu dira Euskara kudeatzeko politika orokorrak. Horrekin, euskararen kudeaketak indarra eta homogeneousasuna lortzea nahi da ULMAn. Era berean, ULMAko kolektiboari eta gizarteari begira, talde izaera eta hizkuntzarekiko konpromisoa ere indartuko dira.

Euskara kudeatzeko politika orokorrak arlo hauetan zehaztu dira:



Euskal Herriko egoitzetan euskaraz lan egitea da helburua, beste hizkuntza batzuk ere erabili eta kudeatuz, baina euskara erdian jarriz. Halaber, ULMAko Euskal Herriko bezero eta hornitzaileei begira eta, oro har, gizarteari begira ere eredu eta eragile izan nahi du ULMAK, euskararen garapen iraunkorari bere ekarpena eginez. Horretaz gain, euskararen arloan landu eta lortu nahi diren jarrerak balio hauen isla izatea nahi da:

- **Erantzukidetasuna:** denona delako euskara normalizatzeko erantzukizuna. Organoek eta batzordeek arauak, kudeaketa sistemak eta baliabideak jarriko dituzte eta eredu izango dira eta pertsona bakoitzak bere esku dagoena egiteko erantzukizuna dauka.
- **Proaktibotasuna:** etengabe aurrerantz tira egin nahi delako, planak eta ekintzak proposatuz, orain dagoenugar hori itzali ez dadin.
- **Positibotasuna:** denak konbentziturik baldin badaude, arlo sozialean zein exekutiboan, eta iparra garbi baldin badago, baikortasuna, konfiantza eta barne kohesioa hobetzeko ere balio izango du arlo honetan egiten denak.

- **Parte-hartzea:** ULMAren izaerarekin bat doalako, euskararen garapenerako denek ekarpena behar delako.

ULMAko kooperatibetako Batzar Nagusietan eman da hizkuntza politikaren berri, prozesuan parte hartu duten pertsonekin egindako bideoa jarriz, sarrera moduan.

Prozesuaren eta emaitzaren balorazio positiboa egin da ULMAn. Prozesua bera aberasgarria izan da. Batetik, parte-hartzaileen ideiak eta egonezinak antolatzeke balio izan duelako. Bestetik, Talde osoarentzat marko orokor berri bat diseinatzeko prozesuan, pertsonen arteko kohesioa hobetu delako eta pertsona bakoitzaren euskararekiko atxikimenduari ere bultzada eman zaiolako.

Bukatzeke, 2018ko udazken aldera, ULMA Taldeko Euskararen Plan Estrategikoa zehaztuko da, onartu berri diren politika orokor horiek ardatz hartuta.



Behin prozesua bukatuta, ULMAko Euskara Planen logotipoa eta lema sortu dira. Hitz nagusi bezala "haritza" hartzen da. "Hartu" eta "hitza" hitzekin jokoa egin da horretarako. Haritza zuhaitz indartsua da, eta horrelakoa nahi da izatea euskararen presentzia ULMAn: indartsua, sendoa eta ondo errotua. Haritzaren hostoek komikietako elkarriketak irudikatzen dituzte, eta hosto bakoitzak ULMAko kooperatiba baten kolorea dauka. Horretaz gain, "ULMAko har ezazu hitza" esaten denean, parte hartzea sustatu eta eskatzen da.

Atal honetan, zure Fundazioak –ULMA osatzen dugun pertsonekin batera– egiten duen jardueraren berri emango dizugu, izan ere, horixe da gizartea eredu humanizatuago eta sostengarriago batera eramateko hartua dugun konpromisoa bideratzeko daukagun modua.



#keinu jasangarria

Mugikortasun jasangarria saritzen dugu

Etxetik lanera eta lanetik etxera zikloak pilatzen dituzu, eta ondoren zure zikloak opariekin trukatu ahal izango dituzu.

Garagaltza auzoan sei hilabeteko proba pilotu bat egin ondoren, Ciclogreen programa Oñatiko esparrura zabaldu da.

Programaren helburua da ohiturak aldatzea ohitura jasangarriagoetara, eta aparkalekuan lekuak libratzea, ezinbestean autoa erabili behar duten pertsonentzat. Horrela lortuko dugu **ULMA enpresa arduratsuago, jasangarriago eta osasungarriagoa izatea.**

Lanera modu jasangarrian joaten diren pertsonak saritzen ditugu: oinez, txirringan, patinetan, lasterka, ibilgailu parekatuan edo LanBusen. Balio dute astelehenetik ostiralera bitarteko desplazamenduek ULMAko Oñatiko kooperatibetatik/kooperatibetara. Oinez egindako kilometro bakoitza 4 ziklo dira, txirringan, lasterka edo patinetan 2 ziklo, eta LanBusen edo ibilgailu parekatuan 1 ziklo.

Oñatiko ULMAko kooperatibek bidegorria dute, eta, ondorioz, errazagoa da autorik gabe ibiltzea. Ariketa egiteko modu bat da, garuna oxigenatzeko, ingurumena errespetatzeko eta paisaiatzeko, lanean hasi baino lehen edo ondoren. Eta, urrutitik bazatoz,

aukera autoa beste batzuekin partekatzea; hori ere bada ingurumenaren aldeko praktika bat, eta saria dauka!

Badakigu zaila dela barneratuta ditugun

ohiturak aldatzea eta askotan erosotasunak edo inertiak gehiegi pisatzen duela, baina zure aldetik pixka bat jarrita, ULMAk saritu egingo zaitu. Lagundu nahi diguzu?



Alta emateko informazio guztia: www.ekokilometro.ulma.com

Haurrentzako tailerrak ekainean

Ekainaren 4tik 22ra, hirugarren urtez jarraian, 4-10 urteko haurrentzako tailerrak antolatu ditugu, gurasoei laguntzeko **laneko bizitza eta familia kontziliatzeko** gai garrantzitsuan.

100 haurrek baino gehiago parte hartu dute aurten, iaz baino 40 gehiago, 70 laguneko taldetan banatuta, astero. Tailerrak ULMA Taldeak Oñatin daukan gimnasioan egin dira.

Primeran ibili dira esperimenduak eta eskulanak egiten, abesten eta ingurumena zaintzearen garrantzia ikasten.

Aurten, tailerrak dinamizatzeaz arduratu diren 6 begiraleetatik 4 ULMAko langileen senideen artean aukeratu dira. Horrenbestez, haur hezkuntzaren arloan duten ezagutza praktikan jarri ahal izan dute.

Azken egunean, tailerretan parte hartu izanaren oroigarri gisa, egurrezko

kaxa bana oparitu genien, Oñatiko Zuazola Larraña Institutuko heziketa bereziko gelako ikasleek eskuz eginga. Gainera, ULMAra etortzera gonbidatu genituen, beraien eman ziezaieten detaile berezi hori gure haurrei.

100 haur baino gehiago
laz baino %40 gehiago



Plastiko kontsumoa murrizten ari gara

Aurreko zenbakian aurreratu genuenez, jasangarriagoak izan nahi dugu kafea hartzeko orduan. **Badakizu ULMA egunean plastikozko 3.000 ontzi baino gehiago kontsumitzen genituela kafea hartzeko?**

Plastikozko edolontzien kontsumoa murrizteko, katiluak banatu ditugu gure Negoziotan. Orain, **katilu bat erabiltzen baduzu, gutxiago ordainduko duzu kafeagatik**: plastikoa kontsumitzea 5 zentimo gehiago kostatzen da.

Gainera, honen alde gaude:

- **bidezko merkataritzako kafea.** Horrek dakar baldintza eta soldata duinak kafea ekoizten duten kooperatibentzat, ingurumenarekiko begirunea, haurrak ez esplotatzea, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta kalitatezko kafea. Bi aukera daude: Robusta (fuertea) eta Arabica (suabea).
- **Bidebarri da zerbitzuaren hornitzaile bakarra.** Bidebarri Oñatiko enpresa bat da, bazterketa sozialeko arriskuan dauden kolektiboak laneratzeko lan egiten duena.



Yoga saioak: irailtik abendura talde berriak

Joan den apirilaz geroztik martxan daude Yoga saioak, ULMA Taldeak Oñatin daukan gimnasioan. Saioak astearte, asteazken eta ostegun guztietan egiten dira, eguerdian, eta "Izan Osasuntsu" programaren barruan kokatzen dira; helburua da gure langileen ongizatea hobetzea, eguneroko estresetik deskonektatzen laguntzea eta beren gorputzarekin konektatzea, eta malgutasuna, erlaxatzeko gaitasuna, kontzentrazioa eta oreka hobetzea.

Lehen saioak, apiriletik uztaiera bitartekoak, oso arrakastatsua izan dira, eta dagoeneko amaitzekotan daude. Baina irailtik abendura bitartean talde berriak antolatuko ditugu. **Parte hartu nahi duzu eta oraindik ez duzu izena eman?** Informazio gehiago nahi baduzu, hemen aurkituko duzu: **begira.ulma.com**. Oraindik egitasmo horretan parte hartu ez duten pertsonak izango dute lehentasuna.



Iraganari keinuka

60/70 urteetako produktu bitxiak

60/70 urteetako ULMA Packagingen produktuen katalogoen azalak, artean SUPERMAP markarekin.



ANTZEKO IRUDIREN BAT BALDIN BADAUKAZU EDOTA MUGARRI HISTORIKOREN BAT GOGOAN BADAUKAZU, GUREKIN HARREMANETAN JAR ZAITEZKE, ULMAREN HISTORIA AZTERTZEN DUGUN ATAL HONETAN ARGITARATZEKO.

ALDEZ AURRETIK, ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZA ESKERGAGATIKI



Nola doan historia aurrera

Oñatin, 1962. urtean iritsi nintzenez, hileko lehen ostiralean ekintza bat egiten zen: Oñatiko eta bertako auzoetako baserriarrek feria antolatzen zuten. Bertan erakusten ziren nekazaritzako makineria, behiak, ahuntzak eta ardiak, fruta arbolen landareak eta gaztak, Santa Marina plazan. Baserriarrek ekartzen zutena salerosten zen, eta arratsaldeko ordu biak aldera amaitzen zen ekintza.

Eta tabernetan banatzen ziren bazkaltzera, Ausejo bodega, Galicia taberna, Herrera taberna, Vitoria taberna eta Anton taberna, eta horrela, egiten zen urteetan zehar. Baina natura ahalguztiduna da eta denak dauka bere amaiera. Orain dela 15 urte jarduera hura bukatu egin zen, eta baserriarrek kontuz zaintzen zuten ohitura ona ere amaitu zen.

Araotzen jarraitzen du taldetxo batek, eta, jarraitzeagatik eta iragana oroitzegatik, ostiraletan jubilatuen tabernara etortzen dira bazkaltzera, izan ere, denboraren poderioz, dena aldatuta dago, baserriarrek salerosten zuten hura guztia.

Zer urtetan asmatu zen nekazariek Euskadi mailan antolatzen zuten feria hura?



Oñati, 2018ko otsailaren 22a

Alfredo Corrales (ULMA Construccionekeo erretiratua)

ERRETIROAK: 2018ko apirilak 1 - abuztuak 31

Juan Ignacio Aguirre



Jose Luis Lete



Arantxa Iturbe



M^a Amparo Campos



Juan Jose Zubia



Rafael Elorza



Manttoni Biain



Alberto Usaola



Angel Biain



Miguel Angel Guridi



Antonia Alemán



Nicolás Santos



Nerea Andonegi



Mikel Izurieta

Eskerrik asko eta gozatu!

Zorionak!

ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK;

Beti bezala, iradokizunetarako postontzia ere erabili dezakezu zure ideiak eta iritziak bidaltzeko.

ULMA Taldea. Departamentu Zentralak.
Garagaltza auzoa 51 - 22 p.k.
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
Erref. Begira: begira@ulma.com

Gara

